



BARRIKAN, BERRIKUNTZA

Merkatuan bereizteko ekimenak abian, Arabako ardogintzan

Walter Wendelin, auzipetua

"Estatuaren gillotina izango da internacionalismoa"

Oroimena, sasien lekuan

Añanan fusilatutako hiru nekazariei omenaldia

ZATOAZ EUSKALTELEN ZUNTZERA

GUZTIA



2016 ARTE



Pakete osoa 0 €-an 2016 arte, eta, gero,
hileko 45,9 €-an soilik (BEZa barne)

**Kontratatu
webgunean,
saltokietan edo
1717an.**

Zenbat eta lehenago
kontratatu, lehenago
hasiko zara aurretzen.

euskaltel

Sustopen hau 2015/10/31 baino lehen Zuntzean egiten diren alta berriei aplikatuko zaie. 12 hilabete irauteko konpromisoa. Ikus gainerako baldintzak www.euskaltel.com helbidean.



Azaleko argazkia:
Itsaso Estarrona

Alea

30. zk.



HARPIDETU ZAITEZ

ALEA astero etxean jaso nahi baduzu,
harpidetu zaitez. 50 euroren truke,
44 ale jasoko dituzu urtean.

www.alea.eus

- 4 Ardoak bereizteko, berrikuntza ardatz Arabako Errioxan.
8 W. Wendelin: "Internazionalismoa ezin izango dute gelditu".
10 Iritzia: Irati Iciar, Iñaki Larrañaga, Itsasergia.
ARABAKO KUADRILLAK
12 Gasteiz: Salburun, Errekabarri eskola berriaren zain.
14 Aiaraldea: Parke Eguna, Lamuza herriko bat aldarrikatzeko.
15 Gorbeialdea: egutegia osatzeko, argazki ikusgarrien bila.
16 Lautada: Araian, energia kudeaketa eraginkorraren bidean.
17 Mendialdea: lau proiektu, kanpezuarren mahai gainean.
18 Añana: fusilatutakoei omenaldia, La Tejera mendatean.
20 Trebiñu: barrendegia euskalduntzeko eskolak prest.
21 Arabako Errioxa: euskara ikasteko laguntzak abian.

HAMAIIKA SALTSA

- 22 Sechu Sende: "Galizierak gihar sendo bat ere badauka".
25 Enpresa munduan euskara sustatzeko lanean.
26 Sexu hezkuntza: irakasgai bat baino gehiago.
27 Zozketak.
28 Postontzia eta umeen denbora-pasa.
29 Denbora-pasa.
30 Agenda.



Argitaratzailea
Arabako Alea Komunikazio
Taldea S.L.

Zuzendaria
Aritz Martínez de Luna Urzelai

Erredakzioa
Anakoz Amenabar
Itsaso Estarrona Elizondo
Mirian Biteri

Komertziala
Erlantz Anda

Denbora pasak
Bagabiga

Inprenta
Bidasoa inprimatzeko zentroa

Banaketa
Bidera zerbitzuak

EGOITZA NAGUSIA
Arabako Alea Komunikazio
Taldea S.L.
Eskola kalea, 10, 13. bulegoa,
01001. Vitoria-Gasteiz, Araba
Tel.: 945 71 60 09
info@alea.eus

Erredakzioa
erredakzioa@alea.eus

Harpidetza
harpidetza@alea.eus

Publizitatea
publizitatea@alea.eus
695 63 28 62

Lege Gordailua: VI-32-2015
ISSN: 2386-8961

Tirada: 3.000 ale

Bultzatzaileak:



Laguntzaileak:



www.aiaraldea.eus

hirinet



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak
diruz lagundua

Zuzenketa: 29. ALEAn argitaratutakoaren kontra, M. Montessori ez
zen moja izan, baizik eta medikua, pedagogoa eta antropologoa.

Asteko kolaboratzaileak: Irati Iciar, Iñaki Larrañaga, Iker Etxaniz,
Estitxu Ugarte.

ALEAk ez du bere gain hartzen IRITZIA sailean, edo bestelako
orrialdeetako kolaboratzaileak, adierazitako iritzien erantzukizunik.

Berrikuntza botilak

Juduentzako ardoa, biolin zaporekoa edo, antzinakoa nobedade, ekologikoa: merkatuan nabarmentzeko bideak irekiz doaz Arabako Errioxan, desberdintzea ardatz. **ITSASO ESTARRONA** @itsasoestarrona GASTEIZ

Txaro Alegrek ez zuen judu-rik ezagutzen: "Ez diot ino-ri bere erlijioaz galdetzen". Bazekien, ordea, "Ebroren bestaldean, Haron, juduen-tzat ardo berezia egiten zutela". Berak ere halako zerbait egin nahi-ko lukeela bururatu zitzaion, beti baitzebilan zer gauza berri egin asmatzeko burua hausten. "Bada-kizu, gaur egun aparteko zerbait egin behar duzu; desberdindu, merkatuan zure tokia aurkitu nahi baldin baduzu", dio. Txaroren irri-ka hori antzeman –"zeinek daki kasualitatez ala patuaren indarrez", eta duela zazpi urte bere upategira jo zuen Bartzelonako errabino batek. Halaxe hasi zen 2009an Kosher ardoa-ren istorioa Ruiz de Viñaspre upel-tegian, Guardian.

Juduen errituen arabera pres-tatutako elikagaiek eta edariekin dute *kosher* deitura. Ardogintzaren kasuan, hainbat dira etiketa hori lortzeko bete behar dituzten baldin-tzak: lehenik eta behin, ezin dituz-te legamiak, entzimak edo bakteriak erabili –Ruiz de Viñaspre, ardo arrun-terako ere, ez dituzte erabil-tzen–; bigarrenik, ardoa arazteko orduan gelatina edo proteinen era-bilera baztertu behar dute, eta arrautz-zuringoak edo, kasu honetan bezala, dekantazio-teknikak erabili; bestalde, barrikak, biltegiak eta

**"Kosher ardo juduari esker
hasi ginen Brasiler
esportatzen; orain, Estatu
Batuetan sartuko gara"**

TXARO ALEGRE RUIZ DE VIÑASPRE UPATEGIA

**"Thyssen museoarekin
egindako botilen bidez,
milioika turistek ezagutzen
dute Arabako ardoa"**

CRISOBELA CASTROMONTE EGUREN UGARTE

**"Egingo dugun ardo
ekologikoa Europara asko
esportatzea espero dugu,
han modan dagoelako"**

ITSASO COMPAÑON COMPAÑON ARRIETA

gainontzeko tresna guztiak ardo judua egiteko baino ezin dituzte baliatu eta, horrez gain, arau zurrun batzuen arabera garbitu behar dute makinaria –hiru aldiz, oro har–.

Badute beste baldintza zorrotz bat: "Mahats-bilketan salbu, juduek baino ezin dituzte produktua egite-

ko tresnak maneiatu, eta haiek baino ezin dute ardoa ikusi edo ukitu, bestela kutsatuko litzatekeelako", dio Txaro Alegrek. Hori dela eta, Israel, Argentina eta Brasil bezalako herrialdeetatik iritsi ohi dira juduak Ruiz de Viñaspre upa-tegira lanera, Bartzelonako errabi-noaren koordinaziopean: "Aginduak gure enologoak ematen ditu, baina eskuak haiek jartzen dituzte". Gizo-nezkoak izan behar dira denak, eta prozesua egiaztatzeko Europako Errabino Handia dator, Londresetik.

Urtean 30.000 litro merkatura-tzen dituzte. "Egia esan, ez da upa-tegiko ardo arruntaren oso ezber-dina". "Bi-biak dira %100 Arabako Errioxa", Txaro Alegreraren hitzetan. Hori bai, kosher etiketa edukitzea balio erantsia izan da Ruiz de Viñas-pre etxearentzat: "Frantzian eta Ingalaterran saltzen dugu, eta, Bra-silen, kosher ardoari esker sartu gara merkatuan; Estatu Batuetan laster egongo gara. Juduentzat ezin-bestekoa da ardoa haien ospakizu-netan eta, nolabait, hautu honek bereiztu egin gaitu, merkatuan gure produktuak saltzen lagundu".


Juduen urte berria, baldintza

Aurten, ordea, zaltzan dago "ardo sakratua" egin ahal izango ote duten. Izan ere, *kosher* edaria egin behar dute aurrena, gainontzeko ardoekin



**Txaro Alegre eta Jaione
Ruiz de Viñaspre, kosher
ardoa eskutan.**

ITSASO IESTARRONA



**Crisobela
Castromonte,
Egurenen estatuan.**

I. IESTARRONA



**Itxaso Compañon
Arrieta, Lantziego
herria atzean.**

I. IESTARRONA



**Judu bat, Arabako
Ruiz de Viñaspre
upategian, Guardian.**

RUIZ DE VIÑASPRE UPATEGIA

"ez kutsatzeko", baina mahats-bilketak aurreratu da eta, aldi berean, urte berri juduan murgilduta dago komunitate hebrearra. Oraindik ez dakite haien zain egon ahal izango diren, gainontzeko ardoa ere egin behar dutelako.

Betiko ekologikoa, nobedade

Zaharra berri bilakatzeko norabidean, ardo ekologikoa da gaur egun Compañon Arrietarren sekretua, Lantziegon. Upeltegiaren aztarna abizenean, Itxaso Compañon Arrietak azaldu du duela bost urte ekin ziotela ekoizpena ekologiko bilakatzeko prozesuari, inbertsio handi bati aurre eginez: "Gaur egun, ardoa beti egin izan den moduan egitea nobedadea da, paradoxikoki. Guk, aurre egingo dugu lehenengo aldiz ardo guztiz ekologikoa, denbora

tarte hori behar delako mahastiak produktu kimikoz berriro guztiz garbi egoteko".

Ardoa Arabakoa dela zehazteak balio erantsia ematen die botilei, upategien arabera

Itxasok memorian iltzatuta du aitaren lan egiteko era ez ekologikoa, eskuarekin atomizagailuan bueltak emateko modua, produktuen aurrean inolako babesik gabe. "Minbiziaz hil zen, eta hori izan zen eredu ezberdin baten alde egiteko arrazoietako bat". Hori, eta ez zutela upategi handien esanetara bizitzen jarraitu nahi: "Nahi zutena egiten

zuten gurekin eta gu bezalako gainontzekoekin; ez genuen haien menpe egoten jarraitu nahi".

Diferentzia, mahastietan

Ardo ekologikoa eta ez ekologikoa-ren arteko diferentzia mahastietan dago batez ere: ezin da herbizidarik erabili eta, beraz, prebentzio lan handia egin behar da mahastiak osasuntsu mantentzeko. Ardoa egiteko ere, legamiarik ez du erabiltzen Compañon familiak. "Produktuan zertan nabaritzen ote den? Ez da nabaritzen", dio Itxasok, biribil. "Batzuk, tamalez, uste dute ekologikoa izateagatik garestiagoa eta txarragoa izango dela". Hain da horrela, ezen etxeko mimatuari, 'Malaspiedras' ardoari, ez baitote ekologiko zigilua jarri, "baten bat ez uxatzeko". European, oster, gero

artepan

eta magikoagoa da "ekologiko" hitza, eta bertara asko esportatzea espero dute Compañon Arrietarrek aurten. Kontinente zaharretik harago, dagoeneko Australiara eta Estatu Batuetara bidaltzen dute Lantziegoko edaria.

Euskara eta Araba, etiketan

"Etengabe gauza berriak probatzeko" bidean barrena, bi ardo berri merkaturatu dituzte aurten: barrikan ondutako ardo txuria, eta zotzik gabeko beltza. Etiketak euskaraz jartzen dituzte; horra beste balio erantsi bat. Era berean, Arabakoa dela ondo zehazten dute, lurraldean gero eta upeltegi gehiagok egiten duten moduan, Errioxako kontseilu arautzaileak zonalderako etiketa propio bat egiteari uko egiten jarraitzen duen bitartean: "Hemen egiten den ardoak ez du gainontzeko Errioxa ardoekin zerikusirik. Pentsa, lehen, Arabako mahatsa hiru aldiz garestiago saltzen zen".

Araba, Tysshenetik mundura

Arabaren izena nabarmentzen dute ere Eguren Ugarte upeltegietan, Guardian. Urtean 25.000 bisita dituzte bertan (baita euskaraz ere) eta, ardoa nola egiten den azaltzeaz gain, "balio erantsia eskaintzen" ahalegintzen dira, euren izena merkatuan aparteko egiteko, Crisobela Castro-monte upeltegiko enoturismo zuzendariak azpimarratu duenez.

Artea da haien etxea berezi egiten duen ezaugarrietako bat. Barrika aretora sartzea besterik ez dago: bertan, Iñaki Garcia Ergüin margolari bilbotarraren margolan erraldoia dute, 50 metro luzeerakoa, Bizet musikariaren Karmen ope-

Mahats-bilketaren festa Eltziegion



IRAILAREN 19AN, LARUNBATA

19:30 Ardo lehiaketaren sari banaketa. Ondoren, ardoa eta baserri txerriarekin senidetze ekitaldia, dastaketa barne.

21:00 Kepa Junkera trikitilari eta pregoilariaren kontzertua.

IRAILAREN 20AN, IGANDEA

11:00 'Ardoaren dantza', Arabako Errioxako dantza taldeen eskutik.

11:30 Pregoa eta muztiatzea. Arabako Errioxako ardoen dastaketa (6 euro / kristalezko kopa + 6 ardo).

12:30 Arabako Errioxako dantza taldeen emanaldia.

13:00 Aizkolarien mahats-biltze txapelketa handia.

14:00 Herri-bazkaria.

Egunean zehar: umeentzako jolasak; musika eta kalejira; artisauak eta labeldun nekazaritza produktuak.

Autobus zerbitzua: Gasteizko Lovaina plazatik, 10:00etan abiatuta, 13 euroan. Itzulera, 18:00etan Eltziegoko parkingetik. Telefonoz izena eman behar da (945 200 100).

raren istorioa kontatzen duena.

Belarriak erne, gertu, jatatxean, zuzeneko musikariekin lagundutako afariak antolatzen dituzte, musika eta ardoa konplize bihurtuta zirrarak sortzeko. Ildo berean, artearekin estuki lotutako beste ekimen bat abiatu dute ikasturte honetan: Thyssen museoarekin batera, ardo botila bereziak atera dituzte merkatura.

Madrilgo kongresu batean sortu zen ideia: "Thysseneko turismo arduradunetako batek kontatu zidan museoko dendan gutxien saltzen zen produktua ardoa zela, Madrilgo upategi batekoa. Jakina, botilan ez zegoen museoarekin zerikusia zeukan ezer eta, gainera, ardo hori eta Eguren Ugartekoa dastatuta, alde nabarmena zen", dio Crisobelak. "Upategietan artea bidelagun baldin badugu ardoa saltzeko, nola da posible Thyssenek saltzen zuen ardoan artelanik ez agertzea?". Egiatzapen hori abiapuntu, produktu berria sortu dute museoak eta upategiak batera: "Maila handiko erreserba ardo bat, etiketan artelan bat duena; zehazki, *Biolinista alaia ardo baso batekin* kuadroa, Gerrit van Honthorst margolariarena".

"Harrituta" daude Thyssen museoan, saltzen duten ardo botila mordoa ikusita. Orain, "urtean milioi bat bisitarik ikusten du bertako apaletan gure ardoa eta Arabako Errioxako izena; askok erosten dute, eta mundu osora zabaltzen da ospea". Bitxikeria bat, merkatuan bereizteko berrikuntzaren alde gero eta upategi gehiagok egiten ari diren bidean.

INTERNETEN: HIRINET.NET

.....



Aldabe plazatxo, 4 Gasteiz
www.salabaratz.com

PROGRAMAZIOA	
Antzerkia Macarena Recuerda <i>"That's the story of my life"</i> Irailak 18 ostirala 20:00 sarrera: 6/8€	SCRATXE GAUA #9 <i>Eszena garapenean</i> Irailak 19 Larunbata 19:00-22:00 sarrera: 1€
Antzerkia Cía Losquequedan <i>"Performance Municipal"</i> Irailak 20 Igandea 19:00 sarrera: 6/8€	Tallerra Macarena Recuerda <i>"Contar con imágenes"</i> Irailaren 21etik 25era eta 25ean... Factoría de Fuegos DANTZA MARATOIA izen-emateak: 5€

WALTER WENDELIN

ASKAPENAKO KIDEA

Euskal Herriko eragile eta mugimendu ezberdinetako kideek Askapenaren kontrako epaiketa salatuko dute, asteburutik aurrera, beste hainbat herri epaiketa abian jarrita; zapata eta palestino laranja ikur, "eskubide zibil eta politikoen urraketa" lau haizetara zabaldu nahi dute ekinaldiok, Walter Wendelin Gasteizko auzipetuak aipatu moduan. **ANAKOZ AMENABAR** GASTEIZ

"Politikoki traba egiteak ez du esan nahi delitua egin denik"

Urriaren 19an hasiko da Askapenaren aurkako epaiketa Madrilén. ETaren eta nazioarteko erakundeen arteko elkarlana egitea egotzi diete bost auzipeturi. Besteak beste, Europako herrialdeetan "elkartasun batzordeak sortzea", nazioarteko foroetan aritzea eta brigadak antolatzea ere leporatu diete. Seina urteko kartzela zigorra eskatu diete, tartean Walter Wendelin (Zurich, 1957) militante historikoari.

Zein testuingurutan kokatzen duzu epaiketa hau?

Euskal Herriko beste epaiketa guztien testuinguru berean, astakeria bat da hau ere. Inork ez, inolako aditurik ezta abokaturik ere ezin dizu esan nola amaitu daitekeen, ezta akusazio guztiak ikasita ere. Beraz gure ikuspegitik sententzia, emaitza, erabat ausazkoa izango da. Horrek ez du esan nahi eurek irizpidea ez dutenik, baina ez du zerikusirik zuzenbidearekin, are gutxiago justiziarekin eta legearekin nork daki... Ministro bati entzun genionetik "ingeniaritza judirikoa" egin zitekeela legeak zerikusi gutxi dauka zuzenbidearekin eta justiziarekin. Hori da abiapuntua: Auzitegi Nazional barruan, marko judizialaren barruan, ez badugu zere-

ginik hortik kanpo lan egitea beste aukerarik ez daukagu.

Babesgabe sentitzen zarete?

Dudarik gabe babesgabetasuna erabatekoa da, egiten duten salaketa azken 30 urteetan egin dugun lanaren kontrakoa delako.

Besteak beste, brigadak antolatzearen kontrako akusazioa.

Askapena talde internazionalista da, elkartasun erakundea, 30 urte baino gehiago lanean daramana. Bost auzipetuok hainbat urte daramatzagu bertan eta hori da egiten diguten salaketa; fiskalaren eskaeraren arabera ez da legezkoa briga-

dak antolatzea, alegia, jendeak izena ematea, trebatzea, herrialde batekin lan egitea –Argentina, Bolivia, Palestina, Kurdistan...– eta herrialde horietako beste aldea ezagutzea, turistak ezagutzen ez duen alde hori hain zuzen. Bertako errealitatea, herri mugimenduen errealitatea, borrokak, berri ekonomikoak, politiko eta kulturalak izatea, hori da egiten duten lana. Eta lan hau guztia kriminalizatzeko duten modu bakarra da ETA erakunde armatuaren agindua izan dela, beraz, hor gure babesgabetasuna; ia ezinezkoa da frogatzea baten



Herri epaiketa iragartzeko prentsaurrekoa egin zuten Laudion, asteartean. | AIARALDEA ATARIA

batek agindua eman ez duela, edo zuk hori zure erabakiz egin duzula.

Bost urte igaro dira Askapenaren kontrako sarekada izan zenetik.


Bai, 60.000 euro ordaindu behar izan genituen, hasieran egunero sinatu behar genuen eta gero astero, ondusun eta kontuak bahituta izan ditugu, eta pasaportearekin kendu ziguten, beraz, gure jarduerak ezin izan dugu normaltasunez egin; nik azken urteetan ia sei hilabete egiten nituen kanpoan. Babesgabe gaude, bai, baina, bestetik, ez dugu biktima izan nahi, ezagutzen dugulako estatuko espainoleko prozedura, botere faktikoen jokaera hemengo prozesuaren kontra.

Espero zenuten, beraz?

Bai, arriskua da Euskal Herriko herri mugimenduan lan egitea, betiere ezarritako ereduari alternatibak planteatzen badizkio, hori da gustoko ez dutena. Elkartasuna salaketa moduan planteatzen dugunean, beste herrialdeetara eramaten dugunean, noski, horrek molestatu egiten du, jakin badakigu gure jardunak haserretzen dituela; baina politikoki traba egiteak ez du esan nahi delitua egiten denik. Elkartasunak informazioa eskatzen du hori, lehenik eta behin, eta hori noski ez da batzuen gustuko, "Marca España"-koen gustuko. Askotan erakutsi dute traba egin eta delitua egitearen arteko desberdintasunik ez dutela bereizten, eta bagenekin arrisku hori bazela.

Estatuaren kontrako herri epaiketa mugimendua abiaraztea proposatu duzue.

Guk joan-etorriko elkartasunean sinisten dugu, hau da, ez dugu uste elkartasuna kolektibo batetik bakarrik egin daitekeenik, baizik eta proiektu nazional batetik, gizartetik. Eta kontuan hartuta bertako herri mugimenduaren egoera, defentsa mugimendu batzuk planteatu genituen, erresistentzia egoera batetik ofentsiba batera igarota. Estatu espainolari herri epaiketak egitea proposatzen dugu; beti egin duguna egitea proposatzen dugu, herri mugimenduko elkarteek haren delituak inputatzea nazioarte mailan, euren lan alorraren arabera. Ez da antzerki bat izango; inputazioak, proba batzuk, sententzia eta kondena posible bat izango da, ez da paripea. Haiek egiten dutena benetan antzer-



Walter Wendelin Askapenako kidea ALEA-ri eskainitako elkarrizketan. | ARITZ MARTINEZ DE LUNA

kia dela erakutsi nahi badugu ezin dugu guk akats bera egin. Besteak beste, Laudion -irailaren 20an-, Agurainen -irailaren 26an-, eta Gasteizen -urriaren 3an- izango gara. Gizarteari eta baita Auzitegi Nazionalari esan nahi diogu ez garelaz ezertaz damutzen, are gehiago, prebentiboki berriz egiten dugula akusazioak izan dena, ez dugu ezer gordetzeko.

Zapata aukeratu duzue ikur. Zergatik? Zapatak pauso hori irudikatu nahi du, defentsibatik ofentsibara; mehatxu egiten diogu estatu espainolari epaiketa hauekin, estatua konde-

natuko dugulako sufritzera hurrengo urteetan edo hamarkadetan internazionalismo solidario gehiago, jende gehiagorena, elkarte gehiagorena, eta toki gehiagotan.

Internazionalismoa geldiarazi daiteke?

Ez, hori ziur dakigu. Gu espetxeratu gaitzakete hainbat urtez, Askapenaren lana ezinezko egin dezakete, baina internazionalismoa ezin izango dute gelditu, eta ziur gaude ale bat baino ez dugula jarri internazionalismoaren gorakada horretan, urtez urte areagotuko dena. Elkartasun internazionalista estatu espainolaren gillotina izango da.

IRATI ICIAR

UEU-KO LANGILEA @iratiiciar



Bitartean nire denda hutsik

Beste pintxo lehiaketa aste bat daukagu oraingoan ere... Halako ekitaldi gastronomiko-folkloriko-propagandistiko-turistiko-koen zale naiz #daitort. Pintxoak ez direnean, kazolatxoak, ardoa edo txakolina; gehitu hilabete hasierako azoka edo bestelako azoka tematikoak ere. Denak aprobeztatzen ditut, nire

hiriko "turista" gisa.

"Antolatu ditzagun bestelako negozioak sustatzeko auzoetako feriak"

Hala ere, gehien disfrutatzen ditudanak azoka ekologikoak eta bertako nekazarienak dira. Luxua da tokiko produktorearekin aurrez aurre hitz egiteko aukera izatea,

bere lanarekin konprometitu dagoena, berak egin duen hori ilusioz erakusten eta saltzen dizuna. A zelako aldea "Ertaroko" mozorroa daraman bizkotxo saltzaile horrekin...

Behinola Zaramaga inguruan harategia duen lagun batekin feria hauen inguruan hitz egiten egon ginen. "Eta auzoetan zer? Zentroan halako ekimen bat dagoen bakoitzean, nire harategia hustu egiten da!", zioen haserre. Arrazoi puntu bat ere baduela esango nuke.

Auzoetako bizitza gasteiztarrona da, auzoki-deok egiten dugu, baina hau ez da berez sortzen, sustatu eta zaindu egin behar da. Zentroko auzoki-deak hainbeste feria eta jaialdiez kokoteraino dauden bitartean, beste auzo batzuk pintxopote-auzoak bihurtzen ari dira. Ea ba, eragin imajinaziorri eta antolatu ditzagun bestelako negozioak sustatzeko auzoetako feriak ere: "Gasteizko mertzerien gymkana", "Arrandegien lehiaketa: saritu arrandegi txukunena'...".

IÑAKI LARRAÑAGA

KAZETARIA @inakilarra



Erdizka

Bada Armentia basoa azpitik zulatzen duen lau erreieko tunel bat. Pintaketez betea, fokurik gabea. Lurrezko horma batera darama errepide horrek. Inora ez, eta auto lasterketa ilegaletarako erabiltzen dute kilometro erdiko bide zuzena. Udalak orain tunela rokodromo bihurtu nahi du.

"Bideragarria da lursail hutsei bizia ematea, 8.000 etxe huts daudenean?"

Jakina da azpiegiturak jaio eta hil egiten direla. Vasco-Navarro trenbidea txirrindularientzako da gaur. Batzuek galdetzen dute ez ote litzatekeen hobe AHTrenak ere bizikleten eskaintzea. Abiatu

aurretik ere hiltzorra heldu zela orain proiektuak, Krea esaterako. Hori bai iraungitze abiadura!

Katedral Berria deitzen duguna ere handi-nahiak gidatutako akatsen erakuslea da. 1904an hasi zituzten lanak eta 1969an amaitutzat jo zuten. Jatorrizko maketaren herena da eraikitakoa. Santuen estatuak erosteko ere ez zitzaizen heldu.

Hiri Antolamendu Plan Orokorraren berrikuspina agindu du Urtaran alkateak. Araudi aldatetekin arindu nahi dituzte neurrigabeko hedapenak sortutako kalteak. Arkaiateko eta Larreingo irla urbanoak Salburuara josi, edo Aretxabaletako kale-izenei kaletarrak eman, adibidez. 8.000 etxe huts daudenean, amaitzeke beste mordo bat, bideragarria da lursail hutsei bizia ematea? Jasangarri eta trinko iraungo duen hiria. Barrura begira, kanpora baino. Berritza, berrira baino. Ez daitezela oraingoan ere gelditu aparrak eta promesak, horrela, erdizka...

ZERGATIK IZENA EMAN? ITSASEGIAREN ZINTA



SAREAN

#Krea

Hamazortzi milioi euro gastatu ondoren Krea hutsik jarraitzen duela salatzeko, ekintza artistikoa egin zuen Irantzu Lekue gasteiztarrek abenduan; 'performance' horrengatik jarritako salaketa kendu berri dio Kutxabankek. **I.E.** @itsasoestarrona GASTEIZ

**Aitor Biain** @Aitorbi

Salaketa kendu dioten arren, Krea eraikinak hutsik jarraitzen duela salatu eta leku fisiko baten beharraz ohartarazi du @Ira_Lekue-k

**Igor Goikolea** @goikoleaigor

Lekuek Araba eta Gasteizko artistei mobilizatzeko deia egiten die. "Artistek nik bezala pentsatzen dute. Nik bakarrik ezin dut".

**Iñigo** @txipirontxio

Zabalganan ondo dakigu kulturarekiko daukazu konpromisoa. Eskerrik asko Gasteizi ematen diozun denagatik!! #SOSKREA

**Karmele Lopez De** @trintxertu

Poztekoa @Ira_Lekue artistaren aurkako salaketa erretiratu izana, baina #Kutxabankek egindako kalteak hor dirau.

**EH Bildu Gasteiz** @ehbildugasteiz

Miren Larrion: "#KREA espazioa gasteiztarren behar kulturalak asetzera zuzendu behar da sorkuntza eta diziplina ezberdinak jorratzeko".

**Hirinet** @hirinet

Irantzu Lekue artistak artea eta kulturarentzako gune bat aldarrikatu du Gasteizen.

ASTEKO ARGAZKIA

**Zure gutunak eta argazkiak bidaltzeko:**

erredakzioa@alea.eus Gutunek gehienez 1.500 karaktere izan behar dituzte. ALEAK laburtu ditzake eta HIRINETEN argitaratu.

Indarrez ekin zioten astelehenean gasteiztar askok ikasturte berriari, kukañaren goikalderaino igotzeko ahaleginak eginez. | HIRINET

IKASTURTE BERRIAN GORA

Olarizuko erromeriak behin-betiko hasiera eman zion astelehenean ikasturte berriari Gasteizen. Goizean udal-ordezkariek mugarren ibilbidea egin ondoren, arratsaldean

milaka hiritar gerturatu ziren tontorrera eta zelaietara. Ausartenak kukañara igotzen saiatu ziren, eskolara itzulera saihestezinari indartsu ekiteko. | ESTARRONA



Salburua auzoko familiak, Errekabarri eraikitzeko zain

Berrehun haur Zaramagako Candido Ruiz de Garibay ikastetxera joan behar dira egunero, behin-behineko eraikin zaharrera

ITSASO ESTARRONA @itsasoestarrona
GASTEIZ

Salburuko Errekabarri eskolak Zaramagan ekin dio ikasturte berriari. Eraikin berria ezean, Candido Ruiz de Garibay ikastetxe zaharrean ikasten jarraituko dute, hirugarren

urtez, haur hezkuntza eta lehen hezkuntzako ikasleek: aurten, dagoeneko, 230 ume dira, bi eta bost urte bitartekoak, hamabi ikasgelatan banatuta.

"Urtero maila bat gehiago eskaintzen du Errekabarri eskolak eta,

martxa honetan, eraikin berria altxatu baino lehen Zaramagako ikastetxe zaharra txiki geratuko zaigun beldur gaude", dio guraso elkarteko presidenteari, Igor Lopez de Ondategik.

Iliada pasealekuan

hutsik jarraitzen duen partzelaren aurrean mintzo da: "Hasieran, datorren urteko abenduan zentro berria estreinatuko genuela esan ziguten, baina epea atzeratu da". Lanak datorren urtarrila-apirila bitartean hasiko direla hitz



Igor Lopez de Ondategi, Errekabarri eskolako guraso elkarteko presidentea, eraikin berria egiteko partzelaren aurrean. | ITSASO ESTARRONA

eman die Eusko Jaur-lari-tzako Hezkuntza sailak. Hartara, 2017-2018 ikas-turterako bukatuta egon-go lirake, lanak egiteko gehieneko epea urte ter-dikoa delako.

Lopez de Ondategiren hitzetan, "okerrean jarri-ta, litekeena da makinak apirila arte lanean ez has-tea; beraz, bizpahiru urte barru egingo genuke lekualdatzea, segur aski 2017-2018 ikasturtean". Iraila horretan bertan nahiko lukete auzoan egon, eta horretan "tematuko" dira; hori posible ez izate-kotan, mudantza ikastur-tearen erdian egiteko prest daude. Hori nahiago dute, 2018ko irailera arte itxaron baino.

Bi urtekoak, kotxez

"Eragozpen eta deseroso-tasun ugari" eragiten diz-kie familiei behin-behine-ko egoera honek, honez-keru hiru ikasturte beteko dituen. Zaramagatik bi

2017

URTEA

Hasieran, 2016ko abendurako aurreikusten zen eraikin berria; epea atzeratuta, 2017-2018 ikasturtea behin hasita egin lezakete lekualdatzea.

eta lau kilometro bitarte-ko distantziara bizi dira gehienak, eta kotxea edo autobusa behar izaten dute haurrak eskolara eraman eta ondoren jasotzeko. Hiru urtetik gorakoentzat bada-go autobus zerbitzua; ez, ordea, bi urtekoentzat: "Seme-alaba bat baino gehiago duten familientzat nekagarria da, nagusia autobus geltokian utzi eta, presaka, txikiena kotxez

"Bi urtekoentzat ez dago autobusik; kotxez eraman behar ditugu"

"Hobe ikasturtearen erdian lekuz aldatu, Zaramagan 2018ra arte jarraitu baino"

IGOR LOPEZ DE ONDATEGI
GURASO ELKARTEKO PRESIDENTEA

eraman behar izaten dute-lako askok".

Garraio publikoa ez da euren beharretara mol-datzen, guraso elkarteko presidenteak zehaztu due-nez: "Gehienek 6. linea hartu behar dute, ondoren 2. lineara autobus-aldake-ta egin eta, bukatzeko, hamar minutu ibili; hori, jakina, autobusean tokia lortzen baldin badute, bi haur-aulki baino ezin dire-lako igo ibilgailu publiko

bakoitzeko".

Oraingoz, bi urteko haurrentzat autobusa jar-tzeko eskakizunari ezezkoa eman dio Hezkuntza sailak. Eguerdian garraio zerbi-tzua emateari ere uko egin dio, "haurrak jantokian geratu daitezkeela argu-diatuta". Hori bai, Udale-txeak Zaramagako ikaste-txearen atean "bus geltoki duina" jartzea lortu dute gurasoek bi urteko borro-karen ondoren, "iaz arte errepidean jaitsi behar izaten zirelako umeak".

Bestelako aldarrika-penak ere badituzte fami-liek. Esaterako, kiroldegia ondo garbitzeko eskatu diote Udalari, asteburutan boteiloia egiten dutelako gazteek bertan; horretara-ko, udal-gobernuaren kon-promisoa lortu dute. Bitar-tean, aldarrikapentsu, hutsik jarraitzen duen partzelan lanak noiz hasi-ko zain jarraituko dute.

INTERNETEN: HIRINET.NET



Nafarroako Ofs Architects enpresak diseinatu du Salburuko eraikin berria; Iliada pasealekuan kokatuko da, trenbidearen ondoan. | ALEA



Adin guztientzako eskaintza kulturala izan zuen Parke Egunak. | AIARALDEA.COM

Parke Egunak herritarrez bete egin zuen Lamuza

Berrogei kultur eragile eta sortzaile baino gehiagok parte hartu zuten ekimenean

ERREDAKZIOA @aiaralde

LAUDIO

Arrakasta izugarria lortu zuen SOS Laudioko Lamuza Parkea plataformak joan den larunbatean deitutako Parke Egunak. Iragarpenek eguraldi txarra aurreikusi bazuten ere, ez zuen euririk egin eta horren eskutik ehunka pertsonak bete zuten parkea.

Eider Ugarriza plataformako kideak jakinarazi du esandako ekimenean 40 elkarte, kirol eta norbanako inguruk parte hartu zutela. Hain justu ere, Laudioko ehun kultural gehiena: Kirikiño elkar-teak umeentzako jokoak atera zituen kalera, udal liburutegiak errepikatu-tako liburuak saldu zituen Bikarte elkarteak laguntzeko, Uhinak Irratiak emandali berezia egin zuen, musika bandak kontzertu

eskaini zuen... eta hamai-ka elkarte ez ezik, hainbat herritar animatu ziren haien ganbaretan pilatu-tako gauzak ateratzen truku-tu edo saltzeko, Lamuza parkeko sarrera okupatu.

Bazkari jendetsua

Laudioko Gazte Asanbladako kideek, berriz, bazkari herrikoia prestatu zuten; paella erraldioen inguruan 300 bat pertsona elkartu ziren.

Arratsaldean kontzertuak egin zituzten Gazte-txean bertan eta hori gutxi balitz, Txakur Toki elkar-teak txakurren erakustaldia antolatu zuen. Bukatzeko, Basalarrina elkar-teak euskarazko filma eskaini zuen.

SOS Laudioko Lamuza Parkea plataformak oso modu positiboan baloratu

du herritarren erantzuna eta partaidetza, jende asko murgildu baitzen ospakizunean.

Bizitza kulturala

Plataformaren helburu garrantzitsu bat bete dute Parke Egunari esker, izan ere Laudion bizitza kultural anitza eta oparoa dagoela agerian utzi dute. Plataformak urrats garrantzitsuak eman ditu erakundeek konpromisoa lortuz eraikinak konpondu ditzaten. Baina oraindik ez du ziurtatu eraikin bakoitzeko erabilera zein izango den.

SOS Laudioko Lamuza parkeko iritzia da herriko elkarte eta kultur eragileen esku geratu behar dela erabaki hori. Eztabaida bideratzeko Parke Eguna mugarri izatea espero dute plataformako kideak.

Bizikletan seguru ibiltzen erakutsiko dute irailaren 22an Laudion

ERREDAKZIOA @aiaralde

LAUDIO

Europako Mugikortasun Astea da hilaren 22ra arte. Aurten ere deialdi horretara atxikitu da Laudioko Udal-eta neurriak hartu ez ezik, sentsibilizazio jarduerak ere egiten ari da.

Esaterako, astear-teen, hilak 22, Autorik gabeko Eguna dela-eta, bizikleta herrian zehar nola erabili jakiteko ikastaroa egongo da. Kurtsoa adinez nagusiko txirrindulariei zuzendua dago, errepideetan txirrindula modu seguruan erabil dezaten. Bi orduko iraupena izango du.

Berbalagun egitasmoa diruz lagunduko du Amurrioko Udalak

IRATI MORENO

AMURRIO

Amurrioko Udalak 9.875 euro bideratu ditu Berbalagun egitasmoaren kostuei aurre egiteko. Programa 2006tik dago martxan eta egonkortasuna emate alde-ra lau urtez luza daitekeen kontratua sinatu du Udalak.

Horretan parte hartu nahi duenak Amurrioko AEK euskaltegiak Etxegoienbidea kalean duen bulegora jo dezake; 945 89 23 34 edo 607 67 37 44 telefono zenbakietan edo aiaralde@ae.org helbide elektronikoan ere eman daiteke izena.



lazko argazki irabazlea; 'Uraren soinua' lelopean, Aramaion dago aterata. | ALEX MENDIKUTE

Eskualdearen irudi eder eta ikusgarrienen bila

Gorbeialdeko Kuadrillak argazki lehiaketa deitu du; urriaren 14an itxiko da epea

MIRIAN BITERI

MURGIA

Zeinek ez du ezagutzen Gorbeialdeko kuadrillak urtero antolatzen duen argazki lehiaketa? Hurrengo urteko egutegia noiz

banatuko duten zain egoten dira bertakoak Gabonetan, barruan azaltzen diren irudi ederrak ikusteko irrikaz.

Lehiaketara aurkeztutako argazki asko egute-

gian agertzen direnak dira; eta aurten dagoeneko zabalik dago lanak aurkezteko epea. Urriaren 14a baino lehen utzi behar dira kuadrillak Murgiako udal-txean duen egoitzan; pos-

ta bidez bidaltzea ere badago.

Gaia librea da, eskualdearekin lotuta dauden eta Gorbeialdeko herrietan hartuta dauden irudiak baino ez dituzte eskatzen; hain justu, Aramaion, Arratzua-Ubarrundian, Legutian, Urkabustaizen, Zigoitian edo Zuian.

Hiru argazki

Parte-hartzea ere irekia da; edozeinek har dezake parte. Gehienez, hiru argazki aurkeztu ahal izango ditu lehiakide bakoitzak, zuri-beltzean edo koloretan.

Epaimahaiak lehiaketaren gaia, kalitatea eta erabilitako teknika baloratu ditu sariak ematerakoan. Lan irabazleak 200 euro jasoko ditu; bigarrenak, 150 euro; eta hirugarrenak, 100 euro. Sari horietaz gain, irudi bat aukeratuko da udalerrri bakoitzeko eta 60 euroko saria emango zaio horietako bakoitzari. Saritutako lanak jendaurrean ikusgai jarriko dira, Kuadrillako egoitzan.

Informazioa nahi dutenek 945 43 01 67 telefono zenbakira deitu dezakete.

HISTORIA

IBABEKO KOFRADIA, PAPEREAN

Ama Birjinaren eguna aprobetxatuz, *Ibabe*ko Andra Mari Kofradia izeneko liburua aurkeztu zuten domekan, Aramaion. Kofradiaren 500 urteko historia jasotzen du, 111 orritan. Salgai dago herriko okindegian, liburutegian eta udaletxean, 10 euroren truke.



Josemari Velez de Mendizabal idazlea eta Cristina Etxenhausia eta Rafael Bengoa kofradiakoak. | GOIENA

Efizientzia energetikoa neurtzeko egitasmo zabala prestatu dute Araian

Europako Batasunak zuzendutako EEPOS izeneko proiektuan parte hartu du Asparrenak eta eredu birtual bat aurkeztu du

ANAKOZ AMENABAR @anamenabar

ARAIA

Zein da Asparreneko energia kudeatzeko modurik eraginkorrena? Azken hiru urteotan buru-belarri izan dira udalerriko efizientzia energetikoari buruzko ikerketa lan bat egiten eta aste honetan aurkeztu dute emaitza herritarren aurrean. Zonaldean garatutako eredu birtual baten bitartez, kudeaketari "etekin handiagoa" atera dakiokeela erakutsi du lanak eta ondorioak dagozkien erakundeen mahai gainean jartzea izango dute hurrengo pausoa.

Hiru urtetako proiektua izan da, 2012ko urrian hasi zutena eta hilabete honetan amaitu dena. Energia sareen kudeaketa izan dute ikergai. "Energia sare horiek nola kudeatu daitezkeen aztertu dugu, energiaren erabilera egokiago bat egiteko asmoz", azaldu du Asparreneko Udaleko teknikari Arkaitz Gobantesek. Energia berriztargarri ereparatuta, zenbait kasutan beharrezkoa baino gehiago ekoizten dute eta beste zenbaitetan motz geratzen da, energia hori gorde ezinik. Gaur egun energia hori Iberdrolari saltzen zaio, legeak hala aginduta, Gobantesek aipatu moduan, eta ikerketaren bitartez energia hori udalerrientzat nola egokitu daitezkeen aztertu dute. "Zentralak energia gehiago sortuko balu, udalerririk behar duena baino gehiago, sare orokorrera nola bideratu aztertu dugu,



Biomasa galdararen bitartez, udalerriko hainbat eraikin berotzen dituzte. | ALEA

udalerrian energia faltarik ez izateko".

Europako Batasunaren eskutik, EEPOS izeneko proiektuaren bitartez, Asparreneko efizientzia energetikoarekin batera beste bi kasu ere aztertu dituzte; Finlandian hainbat etxetako energia kudeaketa aztertu dute eta Alemanian hainbat bulegotako kudeaketa izan dute aztergai. Beste bi kasuen aldean, Asparrenak "zailtasun bat" duela gogoratu du Gobantesek: "Espainian legez behartuta dago energia produzitzen duena Iberdrola edo dagokionari sartzea, beste herrialdeetan ez bezala". Horregatik, "eredu birtual" bat egitea pentsatu dute, ener-

gia modurik eraginkorrenean eta jasangarrienean erabiliz Asparrenen izango lituzkeen emaitzak ikusteko. Azterketaren arabera, posible litzateke bestelako kudeaketa hori gaur egun dituen baliabideekin; besteak beste, San Pedroko zentral hidroelektrikoa abian jarri zuten Araian bere garaian teknologia berriei esker, eta biomasa galdararen bitartez ere energia sortzen dute udalerriko hainbat eraikin berotzeko.

"Legeak aldatu"

Ikerketaren ondorioak eta datu zehatzak mahai gainean dituztela, energiaren kudeaketa arautzen dituen legeak "berriz zehazteko"

baliagarri izan daitekeela uste du Gobantesek. "Azterketa honen bitartez Europatik ere ikusten dute energiaren kudeaketa ez dela oso egokia, eta emaitza hauekin lege-mugak, pixkat bat baldin bada ere, aldatzea gustatuko litzaziguke". Hurrengo hilabeteetan Bruselan aurkeztuko dute txostena, eta Euskal Herriko erakundeetan ere zabaldu nahi dute.

Energiaren inguruko azterketa zabala ez dute amaitu, ordea, izan ere, hurrengo hiru urteetan, energia sareen kudeaketa beharrean udalerriko jendearen jokamoldeak izango dituzte ardatz, energia erabilera egokia ote den jakiteko.

Martxan jarri dituzten proiektuen berri jaso dute kanpezuarrek

Araba Camper egokitzea, udal eraikinetan energia berriztagarriak erabiltzea edo webgune berria abian jartzea dira horietako batzuk

MIRIAN BITERI

SANTIKURUTZE KANPEZU

Batzarra izan zuten joan den astean kanpezuarrek udaletxe osoko bilkuran. Udalak asteotan martxan jarri dituen proiektuak azaldu nahi zizkien herri-tarrei, eta bilkura irekira deitu zituen ostegun iluntzean.

Lau proiektu dituzte mahai gainean. Gehienak joan den agintaldikoak dira, eta korporazio berria horien kudeaketaz arduratu da; tartean, kiroldegi ondoan egingo den Araba Camper autokarabanentzako gunea dago. Lanak dagoeneko hasita daude; urbanizazio lanekin batera, ur-beltzak botatzeko eta ura eta elektrizitatea hartu ahal izateko tokiak egokitzen dabilta. Hasiera batean, 14 ibilgailuen tokia izango duen guneko



Martxan dira Araba Camper gunea egokitze lanak. | KANPEZUKO UDALA

obrak hil amaierarako amaituko dituzte. Aurrekontua 78.830 eurokoa da (BEZa gabe). Pasa den asteko batzarrean esandako gunea kudeatzeko araudia egiteko lantaldea sortzeaz hitz egin zuten.

Bestalde, udaletxean eta kultura etxean energia berriztagarriak jartzeko

proiektua ere azaldu zuten udal ordezkariak; horretarako, 109.237 euro (BEZa gabe) bideratuko dira.

Aurreztea, helburu

Gai horren bueltan honakoa azaldu du Kanpezuko alkate Ibernalo Basterrak: "Pellets bidez eraikinak berotzeko galdarak jarri

ditugu. Dagoeneko egin-dako dago dena; probak egin ditugu eta ondo dabil dena. Hotz egiten duenean jarriko ditugu martxan. Asko aurreztuko dugu horien bidez".

Udalerriko mapa turistikoa ere egin dituzte; hain justu ere, 2.000 mapa. Bost herrietako bide berdeak edo ignaziotar bidea azaltzen dira, besteak beste, horretan.

Mapa horien banaketa kudeatzeko lantalde baten beharra ere azpimarratu zuten udal ordezkari eta herritarren arteko osteoguneko batzarrean.

Webgunea datorren astean

Azkenik, udal webgune berria ere prest dute; datorren asterako nahi dute martxan jartzea. Horren aurrekontua, 5.300 (BEZa gabe) eurokoa izan da.

KULTURA

Azken txanpan sartuko da Atauri Art umore jaialdia

Larunbat iluntzean, Kolektibo Monstrenkoren 'Athra ziles' izeneko antzez-lana izango da Atauriko zubian

M.B.

ATAURI

Ate joka dator Arratiandi kultur elkarteak eta Bapatean Zirku konpainiak elkarlanean antolatutako Atauri Art umore jaialdiaren bigarren zatia.

Hiru emanaldi izango dira aste bukaeran. Larunbatean, irailak 19, Kolektibo Monstrenko taldeak *Athra ziles* izeneko antzez-lana eskainiko du toki

paregabea; hain justu ere, Atauriko zubian izango da ikuskizuna iluntzean, 20:45ean. Ikus-entzuleek linterna edo frontala eraman beharko dute.

Igandean etxeko txikiak izango dira protagonistak: 17:00etan, serigrafia tailerra egingo dute Atauriko pilotalekuan; eta 19:00etan, Zurrunka antzerki taldearen *Iraungorriko Marimiri* izeneko euska-



Kolektibo Monstrenkok *Athra ziles* eskainiko du. | ALEA

razko emanaldia hasiko da. Iraungorri herrian, lasai eta zoriontsu bizi ziren bertako biztanleen istorioa azalduko dute

horretan, *Tranpilius* izeneko gizon berekoi eta handimandia azaldu arte, eta herri osoa hankaz gora jarri zuen arte.



1936an fusilatu zituzten Burgoseko hiru nekazariei omenaldia egin zieten joan den igandean Añanako La Tejera mendatean; Errepublikaren aldeko 300

Oroimena, sasien lekuan

Erreketeeek fusilatu eta La Tejera mendatean hilobiratu zituzten hiru nekazariri omenaldia egin zieten joan den igandean; 1936an fusilatu eta 2010ean aurkitu zituzten gorpuzkinak, Ahaztuak elkartearen laguntzarekin.

ESTITXU UGARTE

ERRIBERAGOITIA

Bost urte igaro dira Primitivo Fernandez de Labastida, Florentino Garcia Valencia eta Monica Barron del Val nekazarien gorpuzkinak La Tejera mendateko hobi komunetik atera zituztenetik, eta bosgarrenez bildu dira senideak, lagunak eta Ahaztuak elkarteko kideak fusilatutako lagunak omentzeko. "Pertsona hauen zordunak gara eta gure konpromisoa urtero hemen egotea da, hemen egongo ez bagina sasitza egongo litzakete toki honetan eta batek bai-

no gehiagok gertatutakoa auzian jarriko luke", esan du Marcelo Alvarez Ahaztuak taldeko kideak.

Joan den igandean, hilaren 13an bildu ziren La Tejeran berrogeita

Omenaldia egin diete hildakoei, Ahaztuak taldeko kideen eskutik

hamar lagun inguru Burgoseko hiru nekazariak ekitaldi xume batean gogo-

ratzeko. Aureskua dantzatu eta lore eskaintza egin zieten mendatean jarritako oroitarriaren ondoan. Primitivo Fernandez de Labastidaren bilobak Gesaltzako eta Erribera-

Herritarren lekukotasunak jaso zituzten hildakoak aurkitu ahal izateko

goitiako lagunak hobia aurkitzeko eman zieten laguntza gogoratu eta esker-

tu zuen: "Duela bost urte hemendik genbiltzan zuekin, pikatxoa hartu genuen eta aitona bilatzen hasi ginen gure kabuz eta jakin gabe oso ondo zer egiten genuen ezta legez kontra ari ginen. Zuei esker gaur nire ama eta izeba, Primitivoren alabak, hona itzuli dira" esan zuen.

Erreketeeek hildakoak

Gasteiz eta Gesaltza Añana lotzen dituen errepidearen bihurtune horretan 1936. urteko irailaren 3an hiru lagun fusilatu eta hobiratu zituzten. Zuloa



-400 pertsona inguru hil zituzten Araban altxamendu militarren ostean. | GAUBEATIK ATARIA

astebete lehenago egin zuen Tuestako erreketet talde batek.

Florentino Garcia eta Monica Barron del Val senar-emazteei buruz ezer gutxi jakin da, soilik 47 eta 45 urte zituztela, baina argazkirik ere ez dute aurkitu; Villanueva de Sopor-tillakoak (Burgos) ziren eta seme-alabarik ez zuten.

Santa Gadea del Cid (Burgos) herriko Primitivo Fernandez de Labastida *Primi* goizaldean eraman zuten bi erreketek etxetik, ustez galdeketa bat egiteko. Ez zen itzuli. Gau hartan etxean utzi zituen Iluminacion hamar urteko alaba eta Felisa emaztea, haurdun, ia erditzeaz. *Primi* nekazaria zen, 35 urte zituen eta basozain izateko ikasten ari zen. Gizon jantzia zen eta irakurtzea, gitarrajotzea eta kantatzea gustatzen zitzaion. II. Errepublikaren

garaiaren udaletxeko idazkariari laguntzen aritu zen; 1936ko irailaren 3koa ez zen *Primi* galdeketa bat egitera eraman zuten lehen aldia. Abuztuaren amaieran bertan guardia zibilek eraman zuten eta bi egun pasa zituen Pancorboko espe-

txean baina etxera itzuli zen, libre. Irailaren 3ko goizalde hartan ez.

Urte asko pasa zuten *Primi*-ren alabek pentsatzen aita faxistek fusilatu eta txakurrek jan zutela, eta ez zuten gorpurik berreskuratzeko itzaropenik.



Primi-ren alabak, La Tejerako oroitarrian. | GAUBEATIK ATARIA

Denborarekin, familiak gau hartan gertatutakoari buruzko testigantzak jaso eta hiru lagunen gorpuzkinak La Tejeran egon zitezkeela irudikatu zuen.

2010ean Ahaztuak elkartearen laguntza eskatu zuten gorpuak hobitik ateratzeko. Maiatzaren 29an hasi ziren lanean inguruan eta ekainaren 12an, etsitzear zeudela, garezur zati bat aurkitu zuten. Astebete beranduago hiru gorpu atera zituzten lurpetik; buruan tiro bana zuten.

La Tejeran jarritako oroitarrian jasotzen da hiru pertsona hauek 1936ko uztailaren 18az geroztik Espainiako estatutan izandako olatu errepresiboaren ondorioz hil zituztela, beste milaka lagunen artean. "Hemen egiten diegu omenaldia eta hemen euren memoria jaso eta aldarrikatzen dugu".

Trebiñu euskalduntzeko heldu zein umeentzako eskolak prestatu dituzte

Nagusien ikastaroei buruzko informazioa nahi dutenek barrendegiko bi udaletxetara jo dezakete, edo Euskara zerbitzura idatzi

MIRIAN BITERI

TREBIÑU

Trebinuko barrendegiko Euskara zerbitzuak ere prest du ikasturte berri-rako eskaintza. Euskalduntze arloan bi kanpaina antolatu ditu. Batetik, helduen euskalduntze kanpaina dago. Arabako gainerako kuadrilletan martxan jarritako kanpaina bera da, baina, Trebiñura egokituta.

Euskara ikasi nahi dutenek irailaren 26ra arte dute Trebiñuko Konderriko eta Argantzungo udaletxeetan izena emateko aukera; Internetez ere egin daiteke, euskeratrebiño@gmail.com helbide elektronikoan.

Barrendegiko Euskara zerbitzutik azaldu dute bakoitzaren beharretara egokitutako taldeak osatzen saiatuko direla; eta eskoletan ikasitakoa praktikan jarri ahal izateko bestelako ekintzak ere antolatuko direla, hala nola, mintzalagun taldeak, kultura emanaldiak edo irteerak.

Horrekin batera gogo-



Eskolez gain, bestelako ekintzak ere egiten dituzte; irudian, Trebiñuko Barrendegiko talde bat. | ALEA

rarazi dute Udalek diruz lagunduko dituztela ikastaroak, eta Habek ere, laguntzak eskaintzen dituela. Urrian emango diote hasiera ikasturteari.

Umeentzako eskolak

Bestetik, Trebiñuko eskola publikoan euskara klaseak eskaintzearena dago. Jakina denez, ikastetxehori Gaztela eta Leongo sarean dago eta beraz,

euskara ez dago ezta ikasgai bezala ere. Gauzak horrela, orain dela hainbat urte, eskolaz kanpoko ekintza bezala, euskara eskolak eskaintzen hasi ziren eguerdi partean.

Azken urteotan, Udala izan da irakasleak zuzenean kontratatu dituen. Aurten, baina, Udaberria euskaltegiaren bidez eskainiko dira eskolak. Taldeen antolaketa ere aldatu egin-

go da. Iaz, astean hiru bider izaten zituzten haurrek eskolak, haietako bi adinen araberrako taldeetan banatuta eta hirugarrena nahasirik. Aurten, astean bi ordu jasoko dituzte, beti ere taldeetan bereiztuta.

Interesatuak hilaren 25a baino lehen eman behar diote izen-emate orria Anari edo AMPAren ordezkari bati.

HISTORIA

Baseliza, kobazuloak eta herriko eraikin esanguratsuenak bisitatuko dituzte Markinezen

M.B.

MARKINEZ

Herriko historia eta toki esanguratsuenak gertutik ezagutzeko aukera izango dute larunbatean, irailak 19, Markinezko herritarrek; oso harrera ona izan du bisitak, 30 lagunetik gora eman dute-eta izena.

Gizarte etxean egin dute hitzordua, 17:30ean. San Juan baseliza, gazteluko eta *Epona* izeneko kobazuloak eta herriko eraikin ikusgarrienak bisitatuko dituzte; hain zuzen, armarrria duten etxeak eta eliza. Rikardo Garaik egingo ditu gida lanak.



Markinez herria gertutik ezagutuko dute bertakoek. | ALEA

Gero eta udal gehiago euskara ikastearen alde

Oion, Eltziegoko eta Lantziegokoek beka arautuak dituzte; Leza eta Samaniegokoak, berri, oinarrien lanketa fasean daude

MIRIAN BITERI

OION

Euskara ikasteko kanpainan betean murgilduta gauden honetan, Arabako Errioxan, dagoeneko, hiru dira euskara ikasteko beka arautuak dituzten udalak: hain justu, Oiongoa, Eltziegokoa eta Lantziegokoa.

Oiongo Udalak urteak daramatza beka sistema horrekin eta beste biek iaz eman zioten hasiera laguntza lerro horri. Gai horren bueltan, Kuadrillako Euskara zerbitzutik iragarri dute berriak ere etorriko direla; izan ere, Leza eta Samaniego beka sistema arautuko duten oinarrien lanketa fasean daude eta.



Kanpainaren eskuorria. | ALEA

Beste bi interesatuta

Horrez gain, gogorarazi dute korporazio berriak lanean hasi direla eta, jada, badirela bi udal interesa agertu dutenak beka sistema abian jartzeko: Lapuebla de Labarcako eta Bastidako Udalak.

Oinarriak argitaratzear

Martxan dauden euskara ikasteko beken artean, laster argitaratuko dira dagokien webgunean Lantziegoko Udaleko eta Eltziegoko Udaleko urteko oinarri arautzaileak. Oro har, batean zein bestean bizi diren herriki-deek izango dute aukera eskaerak egiteko; beste baldintza batzuk ere bete beharko dituzte, guztiak oinarri arautzaileetan jasota daude.

Lantziegoko eta Eltziegoko bekek helburu izango dute hastear dagoen 2015-2016 ikasturtean euskara ikastera apuntatzen diren pertsonak bide horretan laguntzea.

Adi beraz Eltziegoko eta Lantziegoko beka deialdiari; izan ere, gutxi barru irekiko da-eta deialdia.

Hesian talde nafarra Samaniegon izango da irailaren 24an

M.B.

SAMANIEGO

Arabako Errioxa IKA euskaltegiek egiten diharduten matrikulazio kanpainaren bueltan, Hesianek kontzertu akustikoa eskainiko du hilaren 24an Samaniego kultura aretoan, 20:00etan.

Eskolatik kanpo euskara lantzeko asmoz kultura ekimenak gertatzen dituzte ikasturtean zehar, eta nafarren kontzertua horren barruan dago.

Bestalde, matrikulazio kanpainarekin lotutako batzarrek jarraitu egingo dute datorren astean: 21ean, Guardiako euskaltegian, 19:30ean; eta 23an, Samaniegoko ikastolan, 19:30ean; eta Villabuenako kultura aretoan, 20:15ean.

ARABAKO ERRIOKA FESTAZ BLAI

Arabako Errioxako herri askotan jaietan ibili dira azken egunotan; esaterako, Samaniegon, Kripanen, Lantziegon edo Eltziegoren ospatu dituzte Ama Birjinaren omenezko festak. Eskumako irudia, azken herri honetan aterata dago, Plazako Ama Birjinaren jaien hasieran.



Txupinazoa bota ostean, Barrihueloren jaitsiera egin zuten Eltziegoren. | ELTZIEGOKO UDALA

SECHU SENDE

IDAZLEA, IRAKASLEA ETA HIZKUNTZALARIA. Galizian bizi den gatazka linguistikoaren inguruko hitzaldia eskainiko du Sechu Sende idazleak datorren asteazkenean Oihanederren antolatu duten jardunaldietan; galiziera, nawata eta galeseraren inguruko adituek parte hartuko dute eta hizkuntza gutxituekin lotutako ekitaldi kulturalak izango dira. **A.AMENABAR** GASTEIZ

"Lekua galtzen ari da galiziera etengabe, batez ere prestigiodun alorretan"



Kontakizunak, umorea eta soziolinguistika tartekatuta, Galiziako gatazka linguistikoaren inguruan arituko da Sechu Sende. | DAVID LANDROVE

Galiziera irakaslea da Sechu Sende (Padron, 1972), idazlea, arkakuso hezitzailea eta *neofalantea* (galiziera hiztun berria), beste gauza askoren artean. Oraingoan, baina, Galiziako gatazka linguistikoaren inguruko zenbait gako ekarriko ditu Oihanederren antolatutako jardunaldietara.

Zer aurkituko dute datorren asteazkenean, hilaren 23an, Oihaneder Euskararen Etxera gerturatzen direnek?

Jardunaldi hauen helburua gure hizkuntzak gerturatzea da, hizkuntza minorizatuak. Guk Galizian munduan gehien hitz egiten den hizkun-

tzetako bat hitz egiten dugu, portugesa-galiziera, baina gure lurraldean, portugesa jaio zen lurraldean, minorizazio egoera batean dago eta horrek hainbat energia piztuarazten ditu. Hitzaldian saiaturiko naiz galizieraren egoera azaltzen, ikuspegi desberdinetatik, betiere umorearen bitartez, Galiziako herrian belaunaldiz belaunaldi iraun duen *retranca*-ren bitartez noski; azken batean defentsa eta erresistentzia arma bikaina baita umorea. Hizkuntza gatazkaren arloari dagokionez, batetik, istorio triste edo dramatikoak izan daitezkeenak kontatuko ditut eta, bestetik, gizar-

te gihar sendo bat ere erakusten dutenak, herri erresistentziazkoak.

Zeintzuk dira indargune horiek?

Fruitua eman duten hainbat estrategia izan dira azken urteetan Galizian, hizkuntza galeraren kontra egin dutenak. Horietako indargune bat izan daiteke Neofalante mugimendua, euren lehen hizkuntza gaztelania izanik nerabazarora heldu eta galizieraren aldeko apustua egin dutenena. Nik 43 urte ditut eta nire belaunaldian, esate baterako, %17 inguruk hitz egiten dugu galiziera gaur egun, gaztelaniaz hasi ginenean artean. Hainbat ikertzaile ari

dira neofalanteen figura aztertzen, ez bakarrik Galizian, jakiteko zeintzuk izan daitezkeen osagai horiek gazte batek momentu batean halako erabaki bat hartu eta hizkuntza minorizatu batean hitz egiten has-teko, gehiengo batek hitz egiten duen hizkuntzan eroso aritu eta gero.

Zure kasuan, zein izan zen galiziera ikasten hasteko arrazoi nagusia?

Hamasei urterekin hasi nintzen eta 500 orri inguruko idazlan bat egin dezaket nire arrazoiak azalduz, beste guztiei gertatzen zaien bezala, baina niri gustatzen zait pentsatzea *ouija* saio baten ondorio izan zela Castelaoren espirituarekin; Castela ondo ezagutzeko harekin hitz egin behar genuela esan zigan irakasleak kar kar... baina benetan 16 urterekin izan zen kontzientzia hartu nuen momentua, Galiziako telebista saio ugari ikusi eta gero: nola zen posible Japoniako marrazki bizidun batek nik baino hobeto hitz egitea galizieraz? Hainbat faktore izan ziren.

Etxean gaztelaniaz egiten zenuten?

Nire amak betidanik hitz egiten zuen galiziera, haren seme-alabekin eta gorbata eta trajedun gizonekin izan ezik. Orduan hasi nintzen diglosia moduko kontzeptuak ezagutzen eta benetako kontzientzia hartzen. Behar-

"Nola zen posible Japoniako marrazki bizidunek nik baino hobeto galizieraz egitea?"

bada nahiko surrealista dira emandako arrazoiak, baina benetan horrek erakusten du faktore beste lagun daudela aztertzeko.

Galiziera ikasteko eskola proiektu bat abian jarri zenuten duela hainbat urte. Nolako bilakaera izan du?

Rede de Escolas Semente izeneko sarea daukagu. Santiagon jaio zen, duela lau urte, hiru ikaslerekin hasi zen eta ikastolen sorrera ere gogoratzen du zenbait kasutan. Gure hezkuntza sistema publikoan, galiziera hutsaren hurrengoa da, PP Galiziako gobernura iristearekin batera galizieraren galera prozesua hasi zen eta guraso belaunaldi gazteek hizkuntza alienazio arazo honi aurre egiteko asmoz proiektu hau babesten hasi ginen, herri mugimenduen antzeko ereduari jarraituz, autogestioa, asanbladak eta elkarlaren bitartez. Gaur egun 40 ikasle inguru daude, Santiagon bigarren eskola ireki dugu eta Vigon eta Ferrolen ere ireki dute aurten.

Beste helduleku batzuk ere landu dituzue azken urteetan.

Beste indargune nagusi bat galiziera nazioarteko hizkuntza baten moduan hartzea izan da. Gero eta jende gehiago dago Galizian kontziente dena gure seme-alabei Pipi Lastrumen kapitulu bat jarri ahal diegula Brasilgo portugesez-galizieran, edo Japoniako marrazkiak Portugalgo hizkeran, gure hizkuntza bera delako modu ezberdinean hitz egiten den arren: "*Galego e português a mesma lingua es*". Gehiengo baten hizkuntza hitz egiten dugulako baliabide horiek erabiltzea da ideia honen asmoa, nahiz eta gure lurraldean hitzunak galtzen ari garen modu katastrofiko batean.

Hizkuntza politiketan ez dago eragiteko aukerarik?

Ez. Feijoo boterera heldu zen Espainiako nazionalista fundamentalista linguistikoen babesarekin, eta karpaina egin zuen eskoletan galizieraren ustezko inposizioaren kontra, galizierak bakarrik %50eko presentzia lortu zuelako; hori gehiegizkoa zen botere ekonomiko eta politiko konterbadoreenentzat, matematikek galizieraz ez zuten zentzurik euren tzat. Kalean erantzun handia izan zen, zorionez, eskoletan galizieraren



Hezkuntza galiziera orduak murrizteko gobernuak hartutako erabakiaren kontrako manifestazioa, 2010. urtean. | PILAR PONTE



Sechu Sende, haren idazle ibildearen inguruko hitzaldi batean. | ALEA

aldekoa eta geroztik hainbat asanblea eta plataforma abian jarri dira eusten jarraitzen dutenak eta bide berriak sortzen ari direnak.

Azkeneko urteetan lekua galdu ala irabazi du galizierak? Hedabideetan, sare sozialetan...

Lekua galtzen ari da etengabe, alor guztietan, batez ere prestigiadun alorretan, agerikoenetan, administrazioarekin zerikusia dutenetan... Ez dugu galizieraz idatzitako egunkaririk, Galiziako telebista eta irrati publikoko edukiak edadeko jendearentzat bakarrik dira, galizieraz

eskoletan prestigio gutxiena duten ikasgaietarako da. Noski, hizkuntza-aren aldeko aktibistak badaude herri mugimendu ezberdinetan eta horrekin bai, baikor egon gaitezke, itxaropena ematen digute

Euskara eta galizietaren alderaketarik egin daiteke? Zer dute bata bestearengandik ikasteko?

Uste dut asko dugula ikasteko elkarrengandik. Zuen herrialdeaz eta gizarte, politika eta soziolinguistikaz asko dugu ikasteko, baina baita zuek gugandik ere; hemen ere gauzak egiten ari gara desberdinak direnak,

'Hitz adina mintzo' zikloa

IRAILAK 23, ASTEAZKENA

19:00. Andoni Barreña eta Sechu Sende irakasleen eskutik abiatuko da zikloa. Munduko errealitate linguistikoaren berri emango dute modu hurbil eta umoretsuan.

URRIAK 21, ASTEAZKENA

19:00. Isaac Xubin irakasle eta idazlea eta Txerra Rodriguez soziolinguista eta hizkuntza aholkularia. (Galiziera)

URRIAK 22, OSTEGUNA

19:00. Ses (Maria Xoxe Silvar) kontzertuan. (Galiziera)

AZAROA 18, ASTEAZKENA

19:00. Alan King euskalari eta hizkuntzalaria eta solasaldia Tzunhejekat kolektiboko Paula Lopez eta Werner Hernandezekin. (Nawat-a).

AZAROAK 19, OSTEGUNA

19:00. *El Tigre y el Venado* dokumentalaren proiektzioa eta solasaldia Sergio Sibrian zuzendariarekin (Skype bidez). (Nawat-a)

Abenduan galeserari buruzko jardunaldiak izango dira.

denak hizkuntza gatazka baten aurrean. Erresistentzia eta sormen prozesuak desberdinak badira ere, ahalmena dute garaietara eta espazioetara egokitzeko uniformismo kulturalari aurre egiteko.



ALEA aldizkaria ostiralero zure postontzian jaso nahi duzu? Egin zaitez harpidedun, eta 50 euroren truke, urtean 44 ale jasoko dituzu.

www.alea.eus
945 71 60 09
harpidetza@alea.eus



Talde eragileak osatzen duten erakunde, elkarte eta enpresa ezberdinetako kideak bileran. | BAI EUSKARARI

Arabako enpresa munduan euskara sustatuko dute

Hainbat erakunde, elkarte eta enpresek 'world coffee' bat antolatu dute datorren asterako, Arabako enpresa munduan euskararen presentzia nola areagotu aztertzeko; enpresa arabar gehiago erakarri nahi dituzte egitaspora. **BAI EUSKARARI** GASTEIZ

Irailaren 23an egingo da Araban Euskara Lanean izeneko *world coffee*-a, Arabako enpresekin euskarak lanean duen egoeraren azterketa partekatu eta euskaraz lanean ari diren erakundeen praktikak, premiak eta balorazioak jasotzeko. Hortik abiatuta, proposamenak jaso eta hiru urteko eperako Araban Euskara Lanean egitasmoaren gutxieneko helburuak adostuko dira. Egitasmoaren talde eragilea osatzen dute lan munduan euskararen alde lanean ari diren zenbait erakunde, elkarte eta enpresek.

Zer da egitasmoa

Egitasmoaren helburu nagusia da epe motz eta ertainean Arabako enpresetan euskara susta dadin plangintza zedarritzea.

Arabaren gero eta enpresa gehiago ari da euskara euren eguneroko

kudeaketan barneratzen, bezeroekiko zein hornitzaileekiko harremanetan erabiltzen, hizkuntza paisaia, barrura eta kanpora begira. Hor daude, esate baterako Bai Euskarari Ziurtagiria edo Bikain agiria duten enpresak eta euskara plana dutenak. Aldaketak ari dira ematen eta, pixkanaka, euskara sustatzeak eta erabiltzeak ekar ditzakeen onurez ari dira jabetzen alor sozioekonomikoan.

Euskara Lanean proiektuaren bidez Arabako alor sozioekonomikoan zeresana duten enpresen eta entitateen sarea ehuntzen joatea da xedea.

Izen-ematea

Irailaren 23an egingo den *world coffee*-an parte hartzeko, izena eman behar da, honako helbidean: www.baieuskarari.eus.

Bertan Arabako enpresen pre-

sentzia egotea nahi dute antolatzaileek, etorkizuneko erronkez duten ikuspegiaren berri emateko.

Ondorioak aztertuta, epe motz eta ertainean Arabako enpresetan euskara susta dadin plangintza zedarritzea da talde eragilearen egiteko nagusia, eta guztia parte-hartzaileekin partekatzea.

Talde eragilea

Arabako Foru Aldundia

SEA - Arabako Enpresariak

Arabako Merkataritza Ganbera

Arabako Merkataritza Federazioa

Electra Vitoria

Oreka IT

Laneki

Bai Euskarari Ziurtagiriaren elkarte



Beste herrialde batzuetan, derrigorrezko ikasgaia da sexu hezkuntza; irudian, Ordiziako Jakintza ikastolako gazte batzuk solasean. | JAKINTZA

Sexu hezkuntzarako ordua

Ikasturte berria hasita, sexualitateak eskolan duen espazio txikiari buruzko hausnarketa dakar ALEA Gasteizko Emaize sexologia zentroak, sexu hezkuntzaren helburua norberaren ongizatea bermatzea dela gogora ekarriz. **ALEA GASTEIZ**

EMAIZE
SEXOLOGIA ZENTROA
www.emaize.com



Udako egun luzeak, hondartza, Andra Mari Zuria-
ren jaiak, eta abar, atzean
utzita, Arabako umeek
eta gazteek ikasturtea hasi berri
dute, eta honekin batera sexolo-
goontzako lan handia dago ere.

Sexu-heziketa, hezkuntza afek-
tibo-sexuala... Izen askorekin aur-
kezten dira sexualitatea lantzeko
programazioak. Emaizekook Sexuen
Hezkuntza bultzatzen dugu, sexuei
erreparatzen baitiegu, emakume
eta gizonei dagozkien ezaugarri
desberdinak kontuan harturik eta
aniztasuna beti ardatz izanik.

Ezinbestekoa da sexu-hezkuntza
integrala jasotzea, eskubidea dela
azpimarratzea; jakin badakigu, esko-
letan sexualitateak duen espazioa
oso txikia dela, nahiz eta eskola
curriculumean zeharkako gaia izan.
Hau horrela izanik, sexualitatearen
gaia lantzea irakasleen ardura bila-
katzen da. Baina non? Zer ikasgai-
tan? Matematikako klasean sexua-
litatea lantzea posiblea al da? Nos-

ki, eta berez horrela izan beharko
litzateke. Baina egun, irakasleek
sexualitatearen inguruan jasotzen
duten formazioa eskasa izaten da
eta, hortaz, arazoak suertatzen dire-
nean, askotan gurekin harremanen
jartzen dira ikastetxeak, esku-har-
tze puntualak eta gehienetan labur-
rak eginez, helburua larritasunak
asetzea izanik, eta ez eskubidea
bermatzea.

Ba al dakigu sexologo batek
ikasgeletan egiten duen lana zehaz-
ki zein den? Genital bidezko infek-
zioak ekiditeko aholkuak ematen
ditu? Kondoia nola ipini erakutsi?
Maitasunaz hitz egin? Esku-hartzea,
eduki aldetik, askoz zabalagoa dela
esaterik ez dago, eta gure helburuak
larrialdia (haurdunaldiak, gaixo-
tasunak...) ekiditeko haratago doaz,
helburu nagusia norberaren ongi-

zatea bermatzea izanik. Horreta-
rako, norberak bere burua ezagu-
tzea (gorputza, emozioak...), behin
hori eginda norberak bere burua
den bezalakoa onartzea, eta azkenik
bakoitza bere nahiak eta desioak
adierazteko gai izatea bilatzen dugu,
betiere besteekiko errespetua bul-
tzatuz.

Argi dago hezkuntza arloan
sexualitateak behar duen espazioa
aldarrikatzen jarraitu behar dela
Oro har, beste herrialde batzuetako
ereduetan erreparatzea ez litzateke
gaizki egongo. Suedian, adibidez,
1955etik derrigorrezko ikasgaia da
11 urteetatik aurrera, eta Alemanian
eskubide gisa hartzen da. Beraz,
guztioak sexualitatea modu positiboz
bizitzea lortu nahi baldin badugu,
ez zaigu aurretik lan makala geldi-
tzen. Ikasturte ona izan dezagun!



emaize
CENTRO SEXOLÓGICO • SEXOLOGIA ZENTROA

Bueno Monreal 1, behea • 01001 Vitoria-Gasteiz
945 26 58 96 • emaize@emaize.com • www.emaize.com

Azken zozketako irabazlea:

Parralen bazkaria:

Asier Ortiz de Guinea (Gasteiz).



ZOZKETAK

Harpidedunentzat eskaintzak



Hala Bedin afaria

Gasteizko Alde Zaharreko Hala Bedi tabernan **bi pertsonentzako afaria** zozketatuko du ALEAK, ostiral edo larunbat batean afaltzeko. Eman ezazu izena **irailaren 29a** baino lehen. Urriaren 2an jakinaraziko dugu irabazlearen izena.



Atxaspin zubi saltoa

Inguru Abenturaren eskutik, hamar urtetik gorako lau pertsonetz osatutako talde batentzat zubi saltoa zozketatuko du ALEAK, Ondarroako Atxaspi zubitik. Eman izena **irailaren 22a** baino lehen. Hilaren 25ean jakinaraziko dugu irabazlea.

Arabako ALEA aurrera ateratzeko zure alea jartzeko prest al zaude? Zozketetan parte hartu ahal izateko, bidalguzu ALEA etxean jasotzeko interesa izan dezakeen **lagun baten kontaktua**, eta berarekin harremanetan jarriko gara, konpromisorik gabe, harpidetza eskaintzeko. Eta ez ahaztu! Zehaztu zure izen-abizenak eta zer zozketatan parte hartu nahi duzun.



695 63 28 62



erredakzioa@alea.eus

Jar ezazu zure alea...

jaso ezazu zure ALEA!



Trebiñu sagardotegia

ALEAK **bi pertsonentzako** bazkari bat zozketatuko du Askartza herrian kokatutako Trebiñu sagardotegian. Eman izena **irailaren 22a** baino lehen. Hilaren 25ean jakinaraziko dugu irabazlearen izena.



Norbaiti zure mezua
helarazi nahi diozu?
Bidali argazkia eta
testua argitaratu nahi
duzun asteko astelehe-
na baino lehen, email
edo whatsapp bitartez:

erredakzioa@alea.eus

625 231 603

GASTEIZ

Aitziber Ramirez de la Piscina

"Zorionak wuapa! Mila esker zure irriagatik. Pablo Nerudaren gogoeta dakarkiguzu: "Debekatuta dago arazoei irri ez egitea, maite duzunagatik ez borrokatzea, beldurragatik dena alde batera uztea". Maite zaitugu. Arrate, Aratz eta Txema".

UMEEN DENBORA-PASA

HIZKI ZOPA

Bila itzazu ezker-eskuin ageri diren musika tresnen izenak! Norabide guztietan ageri dira hitzak.



L	A	M	Z	X	O	F	S	I	P
I	R	A	U	E	R	N	A	S	E
E	O	T	N	I	A	R	X	T	K
G	B	I	A	I	R	T	O	R	I
U	P	A	H	A	L	R	F	O	N
F	A	G	T	E	S	O	O	P	A
O	N	I	M	E	L	A	I	S	P
A	G	Z	U	F	R	I	A	B	O
E	P	A	O	N	A	I	P	I	X
I	S	E	R	A	I	L	A	R	U



HITZ GEZIDUNA

	Sudurpeko ile multzo	Nafarroako udalerria	DEITURA
	IZENA	Etorrarazi	Narras bihurtu
	Landare xehe		
	Badu horren berri, ba...		
Idunekoa	Sagar prentsa		
Berakoa	Automata		
Korrokada			Bokala
Hilobi			Behorra arreske
			Gabezia
		Erraz	
		Bizkaiko herria	
Errep., txori mota		Ez eta ez eta ez	
Aleak birrin- tzeo tresna		Kontso- nantea	

* Bertsolari arabarra.

SOLUZIOAK

HITZ GEZIDUNA

A	N	L	I	V	A	O	M
K	O	E	T	E	O	K	
Z	E	E	T	E	O	H	
S	E	A	I	S	E		
A	R	A	P	O	K	E	
R	A	T	A	R	A		
E	D	O	L	A	R	E	
R	B	E	L	A	R		
P	O	I	H	A	N	E	
G	B						

SUDOKUA

4	9	2	7	1	6	4	8	3
8	3	5	1	9	7	2	6	4
9	2	6	4	3	5	7	1	8
7	4	1	2	8	6	3	9	5
2	6	3	9	5	4	8	7	1
4	5	9	7	1	8	6	3	2
1	8	7	6	2	3	5	4	9
5	7	8	3	4	9	1	2	6
6	9	2	5	7	1	4	8	3
3	1	4	8	6	2	9	5	7

GOITIBEHERA

U	G	A	V	N	E	I	Z
A	N	E	Z	E	I	G	
A	I	E	Z	E	I	G	
A	E	Z	E	E	Z	A	
A	E	Z	E	E	Z	A	
A	K	I	Z	E			
A	K	I	Z	E			
A	K	I	Z	E			
A	K	I	Z	E			

SUDOKUA

				6	2		5	
							8	3
5				4	9	1		6
		7	6			5	4	
				1				
	6	3			4	8		
7		1	2	8				5
9	2							
	3		1	9				

Nola jokatu? 9x9-ko lauki honetako gelaxka hutsak bete behar dituzu, 1etik 9ra bitarteko zenbakiekin; zenbaki bakar bat ere ez da bi aldiz azaltzen errenkada eta zutabe bieran, eta ezta dagokion 3x3-ko laukian ere.

GOITIBEHERA

1							
2							
3							
4							
5							
6							
7							
8							
9							

Nola jokatu? Goiti eta beheiti letra bat gutxiago edo gehiago du asmatu behar duzun hitzak.
1. Zine aretoak. **2.** Donemiliagako kontzejua. **3.** Landetako hiriburua. **4.** Nafarroako ibaia. **5.** Gabezia. **6.** Ez gazia. **7.** Baleztazt jaurtikitzeko arma. **8.** Lodia, potoloa. **9.** Noka, diogu.



ALEA

Ze Esatek, Sukar Gorri eta Akabera taldeak
Gasteiz. Larunbata 19, 22:00etan, Zaramagako jaietan.

IRAILAK

18

IRAILAK

24

EUSKARAREN AGENDA

MUSIKA

AFU, Ekin Skapunk & Trago Bakoitzean taldeak

Gasteiz. Ostirala 18, 22:00etan, Zaramagako jaietan.

Patx&Run eta Garilak 26 taldeak

Laudio. Ostirala 18, 22:30ean, Latorroko jaietan.

EH Sukarra

Gasteiz. Ostirala 18, 23:30ean, Salburuko jaietan.

Joselu Anaiak

Dulantzi. Ostirala 18, 24:00etan, plazan.

Guda Dantza, ETS eta Disko Dantza

Laudio. Larunbata 19, 23:00etan, Latorroko jaietan.

'Bizi baratzea' liburua aurkeztuko du Jakoba Errekondok

Ozeta. Ostirala 18, 19:00etan, udaletxeko areto nagusian.



AEK

Lisker

Dulantzi. Larunbata 19, 23:30ean, plazan.

Kilkir

Dulantzi. Igandea 20, 13:30ean, plazan.

Eneritz Furyak

Gasteiz. Osteguna 24, 19:30ean, Oihanederren.

Hesian

Samaniego. Osteguna 24, 20:00etan, kultur aretoan.

HAURRAK

Artoartean labirintoa

Ozeta. Euskal Herriko jolasteko

labirintorik handiena.
Informazioa: Garaion.eus

Haurrentzako jolasak

Dulantzi. Larunbata 19, 16:30ean, herriko plazan.

'Iraungorriko Marimiri' ikuskizuna

Atauri. Larunbata 19, 19:00etan, pilotalekuan.

Sukar taldearekin erromeria, haurrentzat

Gasteiz. Larunbata 19, 20:00etan eta 23:00etan, Salburuko jaietan.

Umeentzako txangoa

Asparrena. Igandea 20,



ALEA

Macarena Recuerda

Gasteiz. Ostirala 18, 20:00etan, Baratza aretoan. *That's the story of mi life* lana

aurkeztuko du Macarena Recuerda Sheperd dantzari eta artista plastikoak. Harekin hasiko da Baratza antzerki

aretoko ikasturte berria eta larunbatean hilaren 19an, antzerki pieza laburren Scratxe gaua izango dute.

10:00etan, Araia autobus geltokitik abiatuta. Atxipi mendi taldearen eskutik.

HITZALDIA

'Hitza adina mintzo' hitzaldi zikloa

Gasteiz. Asteazkena 23, 19:00etan, Oihaneder Euskararen Etxean. Andoni Barreña eta Sechu Sende irakasleen eskutik.

IKUS ENTZUN

Gazte Zinemaldia

Ozeta. Ostiraletik igandera, Otaza auzoko Garaionen. Kepa Errasti aktore eta zinemagileak gidatuko du. Izena emateko: 945-06 32 45.

BESTELAKOAK

Bizikleta martxa

Gasteiz. Ostirala 18, 18:00etan, Zaramagako Zuberoa plazatik abiatuta. Gasteizko AEK euskaltegiaren eskutik.

GEUrekin mendira

Gasteiz. Igandea 20, 08:30ean, Mendizorrotzako aparkalekutik abiatuta. Beratzara irteera.

'Gasteiztik arraun the world' udako argazki lehiaketa

Gasteiz. Udako argazkien lehiaketa. Entregatzeko azken eguna: irailak 23. Antolatzailea: Oihaneder Euskararen Etxea.

'Sortegia' ikastaro sorta

Gasteiz. Irailaren 21etik urriaren 7ra arte eman daiteke izena, Oihanederren. Ahozko kontalaritza, soinu ekipo muntaketa eta erabilera, komiki sorkuntza eta moda saioa.

BESTE HITZORDU BATZUK

MUSIKA

Puy Asurmendi

Gasteiz. Ostirala 18, 20:30ean, Ataria gunean.

Diamond Dogs eta Lady Long Legs

Gasteiz. Ostirala 18, 22:00etan, Hell Dorado aretoan

Morodo & Okoume Lions

Gasteiz. Larunbata 19, 20:30ean, Jimmy Jazz aretoan

Remember Queen

Gasteiz. Larunbata 19, 21:30ean, Kubik aretoan.

Professor Cunningham

Gasteiz. Larunbata 19, 22:00etan, Artiumen.

Parradust

Langarika. Igandea 20, 20:00etan, elizan.

Euskadiko Orkestra Sinfonikoa

Gasteiz. Osteguna 24, 20:00etan, Principal antzokian.

ERAKUSKETAK

'Marrazki mikologikoak'

Gasteiz. Urriaren 18ra arte,

Ataria naturaren interpretazio zentroan.

BESTELAKOAK

Antzinako azoka

Artziniega. Larunbata 19, egun guztian zehar. Gastronomia txokoa, eskulangileen saltokiak eta beste hainbat ekitaldi.

Artzain Eguna

Amurrio. Igandea 27, egun guztian zehar. Zonaldeko artzainei omenaldia, artzai txakurren erakustaldia eta beste hainbat ekitaldi.

Mahats Bilketaren Festa

Eltziego. Igandea 20, egun guztian zehar. Kepa Junkera eta Sorginak taldearen emanaldia, upategietan bisitaldiak eta beste hainbat jarduera.

'Burujabetza eraikitzen'

Gasteiz. Osteguna 24, 19:00etan Aldaben, Jaume Casals (CUP) eta Oskar Matuterekin (Alternatiba).

Hizkuntza
gutxiak
ezagutzeko
zikloa



HITZ adina mintzo

Cymraeg (galesera): abenduak 15-16

Galiziera: urriak 21-22

Nawat: azaroak 18-19

zikloaren aurkezpena
irailak 23 asteazkena - 19:00

ANDONI BARREÑA

Euskal Filologiako Doktorea, euskara irakaslea eta Garabideko kidea

"Zer egin dezake euskaldungoak munduko
hizkuntza-galerari aurre egiten laguntzeko?"

SÉCHU SENDE

Idazlea, galiziera irakaslea eta arkakuso hezitzailea

"Hizkuntzak ikasteko hipnosi metodoa eta
Galiziako galiziera-portugesaren
normalkuntza prozesuari buruzko istorioak"

oihaneder.euskararenetxea.eus

1457 ZABALDAS MARIATEGUI 2, 01001 VITORIA-GASTEIZ